



<p align="center"><b>BURUJABETZEN KONTSEILUA ERREGELAMENDUA</b></p>	<p align="center"><b>CONSEJO DE LAS SOBERANÍAS REGLAMENTO</b></p>
<p align="center"><b>ZIOEN AZALPENA</b></p> <p>Gure lurraldeak krisi ekosozialaren aroan ari dira sartzen. Klima aldaketak, energi iturri fosilak baztertu beharrak edota baliabideen agortze orokortuak eredu sozioekonomikoaren jasanezintasunarekin dute lotura zuzena. Ahots askoren aburuz, tartean akademia zientifikoaren ustez, elementu horien batuketak eragin handia izango du gure lurraldeotan, eta ziurra da, jakina, hernaniarren bizi baldintzetan ere.</p> <p>Natur baliabideen narriatze ekologikoak ez du gure jendartearen ongizatea hobetu. Azken hamarkadetan gehiengo sozialen bizi-baldintzen okertzea ikusten ari gara: ez dira oinarrizko zenbait eskubide sozial bermatzen (etxebizitzarena kasu); babes publikoaren sendotasuna pitzatzen ari da; zaintza-eredu jasanezina dugu; lan-merkatua gero eta prekarioagoa da, etab... Gutxi batzuek metatzen jarraitzen duten bitartean, bizitza duin baterako baldintza materialak okertzen ari dira gehiengoarentzako. Hori argi ikusi ahal izan genuen Hernanin 2020an hasi zen osasun krisian.</p> <p>Gertatzen ari denaren aurrean, beraz, herri eta eskualdeoi trantsizio ekosozial ordenatu baterako indarrak biltzea dagokigu.</p> <p>Hernanin azken hiru urteotan aipatu trantsizioari erpin askotatik heldu zaio. Horiek denek Hernani Burujaben hartu dute aterpe. Hernani Burujabek aipatu testuinguruari</p>	<p align="center"><b>EXPOSICIÓN DE MOTIVOS</b></p> <p>Nuestros territorios se están sumergiendo en la era de la crisis ecosocial. El cambio climático, la exclusión de las fuentes de energía fósiles o el agotamiento generalizado de los recursos están directamente relacionados con la insostenibilidad del modelo socioeconómico. Para muchas personas, entre ellas la academia científica, la suma de todos estos elementos tendrá un gran impacto en nuestros territorios, y, por supuesto, también en las condiciones de vida de la población hernaniarra.</p> <p>El deterioro ecológico de los recursos naturales no ha mejorado el bienestar de nuestras sociedades. En las últimas décadas estamos viviendo un empeoramiento de las condiciones de vida de las mayorías sociales: no se garantizan ciertos derechos sociales básicos como el de la vivienda; se está quebrando la solidez de la protección pública; tenemos un modelo de cuidados insostenible; el mercado laboral es cada vez más precario, etc. Mientras unos pocos siguen acumulando, para la mayoría se está produciendo un empeoramiento de las condiciones materiales para vivir una vida digna. Eso lo pudimos ver con claridad en la crisis sanitaria iniciada en Hernani en el año 2020.</p> <p>Ante lo que está sucediendo, los pueblos y comarcas debemos aunar nuestras fuerzas para una transición ecosocial ordenada.</p> <p>Durante los últimos tres años, en Hernani hemos abordado esta transición desde muchos vértices, al amparo de Hernani Burujabe. Hernani Burujabe quiere dar una</p>

erantzun berdinzale eta ekologista bat eman nahi dio; hau da, lurraldeko agente publiko-ekonomiko eta sozialak artikulatu nahi ditu trantsizio ekosoziala bideratzeko, modu parte hartzaile eta demokratikoan aurrera eramateko konpromisoa hartuz. Horrela bada, berariaz sustatuko da herritarren parte hartze zuzena trantsizio ekosozialerako Hernani Burujabe prozesuan. Gauzak hala, bizitzaren oinarri diren sektore estrategikoen gaineko kontrol herritarra berreskuratzea da bere lehentasuna.

Helburu horrekin bat eginez sortu dira hainbat proiektu: energian, elikaduran, zaintzan, monetan, telekomunikazioetan, etxebizitzan... eta baita proiektu horiek gidatzeko mahaiak sortu ere.

Haatik, gobernu ekosistema horretan gabezia bat identifikatu da: trantsizioan parte hartzen duten lurralde eragile denek osatuko duten marko integratu baten falta, alegia. Horri aurre egiteko, prozesu eratzaille bat jarri da martxan. Horrela sortu da Hernaniko Burujabetzen Kontseilua, trantsizio ekosozialerako prozesuan Hernani Burujaberaren baitan parte hartzen duten eragile publiko, ekonomiko eta sozialak biltzeko eta koordinatzeko asmoz.

Egungo erronka sozialei modu kolektiboan erantzun behar diegu; auzoetako eta oro har Hernaniko bizi baldintzak hobetzeko eta gizarte justuago bat eraikitzeko. Halaber, komunitate sendo batek herritarren erantzukidetasun maila handiagoa izatea dakar, egunerokotasunean agertzen diren erronkei erantzun egokiagoa emateko.

Hontaz, komunitatea eraikitzea oinarri hartuta, Udalaren lidergoa gero eta partekatuagoa izatea beharrezkoa da, bereziki autonomia

respuesta igualitaria y ecologista ante dicho contexto, articulando los agentes público-económicos y sociales del territorio para una transición ecosocial, comprometiéndose a llevarla a cabo de forma participativa y democrática. Así, se promoverá la participación directa de la ciudadanía en el proceso Hernani Burujabe para la transición ecosocial. Por tanto, su prioridad consiste en recuperar el control ciudadano sobre los sectores estratégicos en los que se sustenta la vida.

En consonancia con este objetivo, se han creado varios proyectos en ámbitos como la energía, la alimentación, los cuidados, la moneda, las telecomunicaciones, la vivienda... así como mesas de pilotaje.

Sin embargo, en ese ecosistema de gobierno se ha identificado la falta de un marco integrado conformado por todos los agentes territoriales implicados en la transición. Para combatir esta carencia, se ha puesto en marcha un proceso transformador. Así es como nace el Consejo de las Soberanías de Hernani, con el objetivo de aglutinar y coordinar a todos los agentes públicos, económicos y sociales que participan en el seno de Hernani Burujabe, en el proceso de transición ecosocial.

Debemos responder colectivamente a los actuales retos sociales, para así mejorar las condiciones de vida de los barrios y de Hernani, en general, y construir una sociedad más justa. Esto supone un mayor grado de corresponsabilidad ciudadana por parte de una comunidad consolidada para dar una respuesta más adecuada a los retos que se presentan en el día a día.

Por tanto, para poder construir una comunidad es necesario que el liderazgo del Ayuntamiento sea cada vez más compartido,

<p>zein erantzukizuna irabazten ari diren herritar antolatuekin. Politika publikoetan ikuspegi komunitarioaz jarduten dugunean, herritarren protagonismoa bilatzen duten ekintza kolektiboak dira mahaigaineratu behar direnak. Herrikideek harremanak izan eta loturak eraikitzeke duten gaitasuna indartu eta zabaltzea da egitekoa. Elkarrekin egiteaz, administrazioaren eta komunitatearen arteko elkarlan kooperatiboaz ari gara.</p> <p>Hala, Burujabetzen Kontseilua eratu da, Hernaniko trantsizio ekosoziala demokratikoki eta kooperazioz planifikatuko duen kontseilu publiko-ekonomiko eta herritar gisa, honako araudi honekin:</p>	<p>sobre todo con una ciudadanía organizada que está ganando autonomía y responsabilidad. Cuando actuamos desde una perspectiva comunitaria en las políticas públicas, hay que plantear acciones colectivas que buscan el protagonismo de la ciudadanía. Se trata de reforzar y ampliar la capacidad de la ciudadanía para relacionarse y construir vínculos. Hablamos del trabajo conjunto, de la colaboración cooperativa entre la administración y la comunidad.</p> <p>Así, se ha constituido el Consejo de las Soberanías, como consejo público-económico y ciudadano que planificará democrática y cooperativamente la transición ecosocial de Hernani, y cuenta con la siguiente normativa:</p>
<p><b>1. artikulua. Izaera.</b></p> <p>Hernaniko lurraldearen planifikazio estrategikorako partaidetzazko organo gisa eratzen da. Kontseiluak lurraldeko gaitasunak trantsizio ekosoziala, burujabetza eta justizia sozialaren baitan norabidetzeko helburua dauka. Burujabetzen Kontseiluak beraz, lurraldeko eragile publiko, herritar eta ekonomikoen esku-hartzea bideratuko duen markoa izango da. Horrela Hernaniren bilakaera sozial, ekologiko eta ekonomikoa norabidetuko duen planifikazioa modu garden, zuzen, parekide eta demokratikoa definitzeko zeregina edukiko du.</p> <p><b>2. artikulua. Helburuak.</b></p> <p>Hona Hernaniko Burujabetza Kontseiluaren helburu orokorrak:</p> <p>a) Atxikimendu bidea eskaintzea, Hernaniko eragile sozial, ekonomiko eta publikoek egin behar dugun trantsizio ekosozialean protagonista izan gaitezen.</p> <p>b) Bizitza kolektiboaren beharrak erdigunean jarriko dituen eredu sozio-ekonomiko</p>	<p><b>Artículo 1. Carácter.</b></p> <p>Se constituye como órgano de participación para la planificación estratégica de Hernani. El Consejo tiene como objetivo orientar las capacidades territoriales en el marco de la transición ecosocial, la soberanía y la justicia social. El Consejo de las Soberanías será, por tanto, el marco de intervención de los agentes públicos, ciudadanos y económicos del territorio. De esta forma, tendrá la función de definir de forma transparente, directa, paritaria y democrática una planificación que oriente la evolución social, ecológica y económica de Hernani.</p> <p><b>Artículo 2. Objetivos.</b></p> <p>Los objetivos generales del Consejo de las Soberanías de Hernani son:</p> <p>a) Ofrecer una vía de adhesión para que los agentes sociales, económicos y públicos de Hernani seamos protagonistas en la transición ecosocial que debemos llevar a cabo.</p> <p>b) Definir los ejes y destinar los recursos e instrumentos necesarios para construir un</p>

jasangarri bat eraikitzeke ardatzak zehaztu eta beharrezkoak izango diren baliabideak eta tresnak bideratzea.

c) Bizitza kolektiborako oinarrikoak diren sektore estrategikoen gaineko herri burujabetza sustatzea.

d) Tokiko demokrazia ekonomikoa sustatzea, hau da, gure lurraldearen bilakaera norabidetuko duten erabaki sozio-ekonomikoetan eragiteko eta erabakitzeke espazioa izatea.

e) Lurraldearen Planifikazio demokratikoagoa gauzatzea. Gure lurraldeak dituen behar eta lehenetsiak, horiek asetzeko bide eta baliabideak, eta onuren (zein kalteen) itzulkinak kolektiboki kudeatzeko tresna eta kanala izatea. Horrekin batera, aipatu erantzukidetasun eta lankidetzazko-gobernu kultura sustatzea.

f) Hernaniko Trantsizio Ekosozialerako prozesuan perspektiba feminista, ekologitza, kultur-artekoa eta euskalzalea gauzatzea.

Helburu organikoak dagokienez, hauek dira:

a) Hernani Burujaberaren baitan parte hartzen duten lurralde eragile guztiak biltzeko eta koordinatzeko gune den neurrian, bere norabide estrategikoa zehaztuko duen gunea izango da.

b) Kontseilua beraren funtzionamendua erregulatuko duen erreglamendu bat zehaztea.

c) Hernani Burujaberaren baitan ematen diren desadostasunen konponketarako beharrezkoak diren neurriak hartzea.

### ***3. artikulua. Eginkizunak.***

Aurreko artikuluan adierazitako helburuak betetzeko, Burujabetzen Kontseiluari betekizun hauek dagozkie:

a) Hernani Burujaberaren urteko planifikazio orokorra egitea. Planifikazio hori Hernani

modelo socioeconómico sostenible que ponga en el centro las necesidades de la vida colectiva.

c) Promover la soberanía popular en los sectores estratégicos que son esenciales para la vida colectiva.

d) Fomentar la democracia económica local como espacio de influencia y decisión en las decisiones socioeconómicas que orienten la evolución de nuestro territorio.

e) Llevar a cabo una Planificación Territorial más democrática. Ser un instrumento y canal de gestión colectiva de las necesidades y prioridades de nuestro territorio, de los medios y recursos para satisfacerlas y de los retornos de beneficios (y daños). Así como fomentar la citada cultura de corresponsabilidad y cooperación.

f) Desarrollar una perspectiva feminista, ecologista, intercultural y *euskalzale* durante el proceso de transición ecosocial de Hernani.

Objetivos orgánicos:

a) Será un espacio para establecer el rumbo estratégico, en la medida en que es un punto de encuentro y coordinación de todos los agentes territoriales que participan en el seno de Hernani Burujabe.

b) Determinar un reglamento que regule el funcionamiento del propio consejo.

c) Adoptar las medidas necesarias para la resolución de las discrepancias que se produzcan en el seno de Hernani Burujabe.

### ***Artículo 3. Funciones.***

El Consejo de las Soberanías deberá ejercer las siguientes funciones para el cumplimiento de los fines señalados en el artículo anterior:

a) Llevar a cabo la planificación general anual de Hernani Burujabe, que deberá

Burujaberen urteko Plan Estrategikoa jasokoda. Plana osatzeko honako prozesu hau errespetatu beharko da:

- Mahai sektorialetako planak kontuan hartu beharko ditu eta horiek hartuko ditu abiapuntutzat. Horretarako mahai sektorial bakoitzak bere plangintza edukitzea ezinbestekoa izango da.
- Burujabetzen ildoak lantzen dituen Herritar Taldean antolatuak diren herritarren urteko proposamenak kontuan izan beharko ditu eta horiek hartuko ditu abiapuntutzat. Horretarako Herritarren taldeak plangintza izatea ezinbestekoa izango da.
- Udalaren urteko planak kontuan hartu beharko ditu eta horiek hartuko ditu abiapuntutzat (planifikatuko diren eremuei dagokienez). Horretarako, dagokion udal sailak bere plangintza edukitzea ezinbestekoa izango da.
- 

b) Burujabetzen Kontseiluak esleitu zaizkion aurrekontuan koadratu beharko du urte bakoitzeko Plan Estrategikoa.

d) Aurretik aipatutako gidalerroak integratuko ditu eta proposamena helaraziko die Hernani Burujabeko agente guztiei. Ekarpinak egiteko denbora jakin bat emango da.

e) Burujabetzen Kontseiluak aipatu Plan Estrategikoa Hernaniko lurralde agente guztien kontrastera eramateko bideak jarri beharko ditu ahal duen neurrian. Izan elkarte, enpresa, erakunde publiko eta batez ere herritar. Bide horiek aurrez-aurrekoak edota telematikoak izango dira.

f) Hernani Burujaberen urteko balantzea egitea. Burujabetzen Kontseiluak Plan Estrategikoaren inpaktu-balantzea egin beharko du urtea amaitzerakoan. Horretarako prozedura hau errespetatu beharko duenak:

- Plan Estrategikoaren helburuak

incluirse en su plan estratégico anual. Para la elaboración del Plan se deberá cumplir el siguiente proceso:

- Deberá tener en cuenta y partir de los planes de las mesas sectoriales. Por tanto, cada mesa sectorial deberá contar con su propia planificación.
- Deberá tener en cuenta y partir de las propuestas anuales de la ciudadanía organizada en el grupo ciudadano/a que trata las líneas de las soberanías. Por tanto, será imprescindible que dicho grupo ciudadano/a cuente con una planificación.
- Deberá tener en cuenta y partir de los planes anuales del Ayuntamiento (en relación con las áreas que se planifiquen). Por tanto, será imprescindible que el departamento municipal correspondiente cuente con su propio planeamiento.

b) El Consejo de las Soberanías deberá cuadrar su plan estratégico anual en el presupuesto que le haya sido asignado.

c) Integrará las directrices anteriormente citadas y trasladará la propuesta a todos los agentes incluidos en Hernani Burujabe. Se concederá un tiempo determinado para realizar aportaciones.

d) El Consejo de las Soberanías deberá establecer las vías necesarias para que el citado plan estratégico pueda ser contrastado por todos los agentes territoriales de Hernani, sean asociaciones, empresas, instituciones públicas y, especialmente, ciudadanos y ciudadanas. Estas vías podrán ser presenciales y/o telemáticas.

e) Realizar el balance anual de Hernani Burujabe. El Consejo de las Soberanías deberá realizar el balance de impacto del plan estratégico una vez finalizado el año, debiendo cumplir el siguiente procedimiento:

- A principios de año se definirán los



<p>zehaztuko dira urte hasieran horretarako diseinatu diren adierazleak erabiliz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Plan Estrategikoaren ekintzak eta proiektuen emaitzak adierazleen bidez neurtuko dira.</li> <li>• Neurketa Burujabetzen Kontseiluak koordinatuko du; udal, herritar eta mahai sektorialen laguntzaz.</li> <li>• Emaitzak jasotzen dituen memoria publiko egingo da eta herritar guztiei eskuragarri jarriko zaie.</li> </ul> <p>g) Planifikazio prozesuan adostasunez ezarri diren zehar lerroen ikuskaritza egitea. Burujabetzen Kontseilua sortzen den unean hauek dira: Euskara, generoen arteko parekidetasuna, iraunkortasuna, justizia soziala, kultur-aniztasuna, eta hezkuntza.</p> <p>h) Horrek esan nahi du, zehar-lerrokatzen diren gai horiek sektore eta proiektu guztietan lantzea sustatuko duela eta hori egin ahal izateko proposamenak bildu eta neurriak proposatuko dituela.</p> <p>i) Egon daitezkeen desadostasun estrategikoen gaineko eztabaidak bideratzea, betiere prozesu osoari dagozkion eztabaida eta erabakiak baldin badira eta horretarako prozedura ireki eta gardenak erdietsiz.</p> <p>j) Norabide estrategikoaren inguruko eztabaida sustatu eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu.</p> <p>k) Kontseilu beraren araudia onartzea, eta beharrezkoa irizten bazaio aldatzea.</p> <p>l) Hernani Burujaberaren baitan eman daitezkeen balizko gatazken aurrean, gatazka bera sortu den markoan konpontzea lortuko ez balitz, Burujabetzen Kontseiluak gatazka kudeatzeko batzorde bat sortzeko ardura izango du. Ezein gatazka konpontzeko jartzen diren bitartekoak sortutako gatazka hori konpontzeko nahikoak ez badira, azken hitza eta erabakia Kontseiluarena izango da.</p>	<p>objetivos del plan estratégico, utilizando los indicadores diseñados al efecto.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Se medirán tanto las acciones del plan estratégico como los resultados de los proyectos mediante indicadores.</li> <li>• La medición será coordinada por el Consejo de las Soberanías, con la colaboración del Ayuntamiento, la ciudadanía y las mesas sectoriales.</li> <li>• Se publicará la memoria de los resultados y se pondrá a disposición de toda la ciudadanía.</li> </ul> <p>f) Supervisará las líneas transversales establecidas de común acuerdo en el proceso de planificación (conformadas durante la creación del Consejo de las Soberanías): euskera, igualdad de género, sostenibilidad, justicia social, multiculturalidad y educación.</p> <p>g) Esto significa que promoverá el tratamiento de las citadas cuestiones transversales en todos los sectores y proyectos, y que recabará propuestas y dispondrá de medidas para posibilitarlo.</p> <p>h) Canalizar las controversias estratégicas que puedan existir, siempre que se refieran a debates y decisiones del proceso, mediante procedimientos abiertos y transparentes.</p> <p>i) Promover el debate sobre el rumbo estratégico y poner los medios necesarios para ello.</p> <p>j) Aprobar y, en su caso, modificar el reglamento propio del Consejo.</p> <p>k) Ante los posibles conflictos que puedan surgir en el seno de Hernani Burujabe, si no se pudiera resolver el conflicto en el marco en el que se ha originado, el Consejo de las Soberanías deberá conformar una comisión de gestión del conflicto. Si los medios dispuestos no fueran suficientes, será el propio Consejo quien decida en última instancia.</p>
--	--

#### 4. artikulua. Osaketa eta egituraketa.

Hernaniko Burujabetzen Kontseiluko kideak izango dira, eskubide osoz:

- a) Hernaniko Udaletik: Udalbatzarrak hautatuko dituen zinegotzi delegatuak. Gehienez 2 ordezkari.
- b) Burujabetzen ildoak lantzen dituen Herritar Taldea. Talde hori da herritarren partaidetza bideratuko duen eragilea, herritar guztiei irekia egongo dena. Gehienez 2 ordezkari.
- c) Burujabetza prozesuan ezarri diren sektore estrategikoen gidaritza eta jarraipena egiten duten mahai sektorialetako ordezkariak. Mahai horiek sektore bakoitzeko eragile ekonomiko (sektorearen balio-kate osoaren ordezkaritza) politiko eta sozialak barnebiltzen ditu, sektoreko burujabetze prozesuaren planifikazio estrategikoaren diseinua, proposamena, kudeaketa eta jarraipena egiteko zeregina du.
- d) Erabaketan partaidetza edukiko duten kideen artean genero-parekidetasuna egotea bilatuko da.

Honez gain, koordinazio taldeko kideek parte hartuko dute. Horiek boto-eskubiderik ez dute izango eta idazkaritza lanak egingo dituzte.

Bestetik, gai ordenaren arabera honako profilen parte hartzea aurreikusten da

- Udaleko teknikariak.
- Hernaniko auzoetako ordezkariak.
- Hernaniko elkartegintzako erakundeak. Bereziki Burujabetza Kontseiluak definituriko zehar-lerroetan lanean ari direnak.
- Hainbat eremu aholkularitza ematen ari diren enpresa edo elkarteak.
- Udal mailaz gaindiko erakundeak, hala nola, sindikatuak, kooperatibak edota unibertsitatetik ekarpen kualitatibo egin dezaketen pertsonak.

#### Artículo 4. Composición y estructuración.

Serán miembros de pleno derecho del Consejo de las Soberanías de Hernani:

- a) Del Ayuntamiento de Hernani: los concejales y concejalas delegadas elegidas en Pleno. Máximo de representantes: 2
- b) El grupo ciudadano/a que trata las líneas de las soberanías. Será el agente encargado de dirigir la participación ciudadana, que estará abierta a toda la ciudadanía. Máximo de representantes: 2
- c) Representantes de las mesas sectoriales que ejercen el liderazgo y el seguimiento de los sectores estratégicos establecidos en el proceso soberanista. Estas mesas, que engloban a los agentes económicos de cada sector (representación de toda la cadena de valor del sector), tienen como misión el diseño, propuesta, gestión y seguimiento de la planificación estratégica del proceso de soberanía sectorial.
- d) Se buscará la igualdad de género entre todos los miembros que van a participar en la toma de decisiones.

Asimismo, participarán los miembros del equipo de coordinación. No tendrán derecho a voto, pero ejercerán sus funciones de secretaría.

Por otro lado, se prevé la participación de los siguientes perfiles, según el orden del día:

- Personal técnico del Ayuntamiento.
- Representantes de los barrios de Hernani.
- Entidades asociativas de Hernani, especialmente las que trabajan en las líneas transversales definidas por el Consejo de las Soberanías.
- Empresas o asociaciones que estén prestando asesoramiento en diferentes ámbitos.
- Entidades supramunicipales como sindicatos, cooperativas o personas

## **5. artikulua. Kontseiluaren bilkurak eta funtzionamendua.**

- a) Ohiko bilkurak:urtean 2 gutxienez izango dira.
- b) Bilkura batetik hurrengora arte koordinazioa eta jarraipena idazkaritzak egingo du. Tokiko Garapeneko teknikaria izango da horren arduraduna.
- c) Bilkurarako deialdiak idatziz egingo dira, aste beteko aurretiaz eta eguneko gai zerrenda eta aurreko bileraren aktaren zirriborroa erantsiko zaio.
- d) Akta eta dokumentazioa horretarako sorturiko biltegi birtual batean jasoko dira, partaide denak sarbidea izan dezaten.

## **6. artikulua. Planifikazio batzordea.**

Planifikazio batzordea Burujabetzen Kontseiluak erabakitako ildo eta ekintzak aurrera eramateko lantaldea izango da. Hurrengo ezaugarriak izango ditu:

- Kontseilua baino maizago bilduko da, Kontseilu batetik bestera, planteatutako ekintzak bideratu ahal izateko.
- Izaera exekutiboa izango du, ez erabakitzailea, eta kontseilutik kontseilurako egitekoen jarraipena eta koordinazioa egingo du.
- Honako osaketa hau edukiko du: bi udal ordezkari, herritarren elkarteko bi ordezkari, koordinazio taldeko bi kide.

## **8. artikulua. Erabakiak hartu.**

Partaide guztiak bat etortzea da Burujabetzen Kontseiluak erabakiak hartzeko lehenetsiko

que pueden aportar cualitativamente desde la universidad.

## **Artículo 5. Sesiones y funcionamiento del Consejo.**

- a) Sesiones ordinarias: al menos 2 al año.
- b) La secretaría se encargará de la coordinación y el seguimiento de las sesiones. Será el técnico o la técnica de Desarrollo Local quien asuma esta responsabilidad.
- c) La convocatoria de las sesiones se realizará por escrito, con una antelación de una semana, y se adjuntarán tanto el orden del día como el borrador del acta de la sesión anterior.
- d) El acta y la documentación se recogerán en un almacén virtual creado al efecto, para facilitar el acceso de todos y todas las participantes.

## **Artículo 6. La comisión de planificación.**

La comisión de planificación será el grupo de trabajo encargado de llevar a cabo las líneas y acciones acordadas por el Consejo de las Soberanías. Tendrá las siguientes características:

- Se reunirá con más frecuencia que el Consejo, para poder orientar las acciones planteadas.
- Tendrá carácter ejecutivo, no decisorio, y se encargará del seguimiento y la coordinación de las funciones del Consejo.
- Estará conformada por dos representantes municipales, dos representantes del tejido asociativo ciudadano y dos miembros del equipo de coordinación.

## **Artículo 8. Toma de decisiones.**

El Consejo de las Soberanías priorizará el acuerdo entre las y los participantes como

duen formula. Hau da, agenteen irizpide-autonomia babestu eta sarituko du, baina hortik aurrera Kontseilua saiatuko da agenteen arteko kontsentsuak erdiesten.

Hori esanda, momentu jakin batean kontsentsu osoa ezinezkoa balitz, erabakiak hartzeko bozketa egingo da. Bozketa horretan ordezkari bakoitzak boz bat izango du eta gehiengo sinplez hartuko dira erabakiak.

fórmula para la toma de decisiones. Es decir, apoyará y premiará la autonomía de criterio de los agentes, pero a partir de ahí se encargará el propio Consejo de conseguir consensos entre los agentes.

Dicho esto, si en algún momento no fuera posible el consenso total, se someterá a votación. Cada representante contará con un voto y los acuerdos se adoptarán por mayoría simple.

## Oharra:

Hernaniko Udalbatzak erabaki zuen, 2025eko maiatzaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onespina ematea Burujabetzen Kontseilua arautzeko Erregelamenduari.

2025eko ekainaren 06en Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zen haserako onarpenaren iragarkia eta 30 egun baliodunez espedientea jendaurrean jarri da eta interesatuei entzunaldia epea eman zaie, Hernani.eus atariko iragarki taulan, argitaratua egon da epe berean, espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzunaldi epea emanaz

Alegaziorik, erreklamaziorik edo inolako iradokizunik aurkeztu ez denez behin-behineko onarpena behin betiko onespina bihurtu da, eta ordenantza indarrean sartuko da, horrela xedatzen baitu apirilaren 2ko 7/1985eko Toki-Araubidea arautzen dituen Legearen 70.2 artikulua.

## Nota:

El Pleno del Ayuntamiento de Hernani, en sesión ordinaria que tuvo lugar el 27 de mayo de 2025 aprobó inicialmente el reglamento regulador el Consejo de las Soberanías.

Con fecha de 06 de junio del 2025 publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el anuncio referente a la aprobación inicial y antes de la entrada en vigor se sometió el expediente a información pública y audiencia por un periodo de treinta días hábiles. También en la página web corporativa, hernani.eus en el tablón de anuncios ha estado publicado durante el mismo plazo, para el trámite de información y audiencia pública.

Al no haberse presentado ninguna alegación, reclamación ni sugerencia, la aprobación provisional se transforma en definitiva y el reglamento entrará en vigor de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa  
Hernaniko udal-idazkaria

Hernanin 2025eko uztailaren 23an